

# **BERBARIK BERBA SAILA DERITZAN LIBURUKIEN AURKEZPENAK**

**Euskaltzaindiko Egoitza**

*Amaia Okariz*

*Ricardo Badiola Uriarte*

Liburukiok Iñaki Gaminde, euskaltzain urgazle eta EHU/UPV irakasle katedradunak burutu ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak babesturik eta Bilbao Bizkai Kutxa Fundazioak argitalpena finantziatuz.

Aurkezpenak noiz, izenburua eta partaideak:

–2001-III-08: *Meñaka Berbarik Berba* (Liburua eta CDa)

–2001-X-10: *Leioa Berbarik Berba* (Liburua eta CDa)

–2001-XII-09: *Arrieta Berbarik Berba* (Liburua eta CDa)

–2001-XII-09: *Jatabe Berbarik Berba* (Liburua eta CDa).

*Egilea eta aurkezlea: Iñaki Gaminde.*

## **Aurkezpenetan partaideak:**

- Bizkaiko Foru Aldunditik: Gotzon Lobera, Euskera Sustatzeko zuzendaria;
- Euskaltzainditik: Jose Antonio Arana Martija, euskaltzain osoa, diruzaina eta Azkue Bibliotekako batzordeburua;
- Meñaka, Leioa, Jatabe eta Arrietako alkateak;
- BBK Fundazioaren izenean: *Arrieta eta Jatabe* liburukien aurkezpenean, Joserra Bilbao, Elebitasun Zerbitzuko burua.

## **Deskripzioa**

Aipatu liburukiotan tokian tokiko berbetaren deskripzioa egiten da eta herriotako kultura islarazten. Berbak, testu etnografikoak, narrazioak eta kan-

tak biltzen dira. CDetan soinu artxiboak gehitu dira aipatu herriotako informatzaileei entzuteko. Testuekin batera seinalea ematen da. Liburuek egitura berbera daukate: gizakiaren premiak; gizakia eta ingurunea; gizakiaren jarduerak, berbeta, narrazioak eta kantak.

IÑAKI GAMINDE

## JATABE BERBARIK BERBA



Bizkaiko Foru  
Aldundia

Diputación Foral  
de Bizkaia

Departamento de Cultura

BILBAO  
2001